



## AZKEN MEMORIA EGITEKO GIDOIA

Egonaldia amaitu aurretik, elkarrizketa-laguntzaileek memoria bat idatziko dute. Bertan jasoko dute beren parte-hartzearen balorazioa eta egindako jardueren nondik norakoa. Hori egiteko, honako eskema hau erabil daiteke:

- ③ Programan parte hartzeari buruzko itxaropenak.
- ③ Esperientziaren garapena. Alderdi didaktikoak, antolaketa eta ikastetxeko bizitzan izandako parte-hartzea.
  - Gelan egindako jardueren balorazioa: ikasleen hitz egiteko gaitasuna hobetzen egindako ekarpena eta beste kultura batzuk ezagutze aldera egindakoa.
  - Hizkuntzako mintegiarekiko koordinazioa. Ikuskapena eta jasotako aholkularitza.
  - Beste jarduera batzuetan izandako parte-hartzea. Zenbateko etekina atera dion, bai ikastetxeak, bai norberak.
- ③ Esperientziaren balorazio orokorra:
  - Programak egindako ekarpena norberaren prestakuntzari eta hemengo hezkuntza-sistema eta kulturaren berri izateari.
  - Izandako parte-hartzearen alderdi onenak.
  - Hobetu daitezkeenak.
  - Oharrak eta iruzkinak.

### **GARRANTZITSUA:**

- 🕒 Memoria hau **maiatzaren 15a baino lehen** bidali behar da hauetako helbide batera:

[huisen1@ej-gv.es](mailto:huisen1@ej-gv.es)

[huisic05@ej-gv.es](mailto:huisic05@ej-gv.es)

- 🕒 **Kontsultak:** 945018362 // 945018460 telefonoetara deituz, edo posta elektronikoko horietara idatziz.

Programari buruzko informazio gehiago: <http://eoieuskadi.net/eu/auxiliares.php>